

# Aparkalekuen aurreproiektua

Anteproyecto de aparcamientos

© Argitaratzailea/Edición: Debako Udala  
Egilea/Realización: Kaioa a.s.p.  
Ale kopurua/Ejemplares: 2000  
L.G./D.L.: SS-918-2012

Lehenengo hotzak eta izozteak iritsi zaizkigun honetan, uda garaiko balorazio txiki batez hasiko dugu aldizkaria.

Udaldia ondo joan dela esan dezakegu, hasieran eguraldia lagun izan ez bagenuen ere, gerora eguraldi ona izan da nagusi. Herrian ekintza ugari burutu dira, besteak beste Pablo Sorozabal eta Jorge Oteizaren inguruan antolatutako jardunaldiak izan ditugu, herriko talde eta eragileekin elkar lanean burutuz.

Hondartzako sorospen zerbitzu berriak hasieran kezkak sortu bazituen ere, berauek gaindituta, normaltasun osoz igaro da denboraldia.

Ondar Gain tabernaren kontzesio eskaerak izan dituen alegazioak oztopo izanik, oraindik Madril en erantzunaren zain gaude. Guztion kezka den egoera hau laster bide onetik argituko delakoan gaude.

Uda guztian zehar izan ditugun jai ezberdinak, egitarau ahalik eta osatuenekin egin dira elkarlanari eta partehartzeari esker.

Kopraixetarako, autobus zerbitzu berezia jarri zen Aldundiaren laguntzarekin.

Debako jaiak dagokienez, egunez nahiz gauz egitarau ahalik eta anitzena eta osatuen egitea izan da jai batzordearen helburua, zaletasun guztiei erantzunez.

Uda honetan, kirol aukerak ugariak izan dira, ohizko ikastaroez gain, gaztetxoek igeriketa egiteko aukera berria izan dute Mutrikuko igerileku naturalean.

Bestalde, Debako kirol mahaiko lan taldeak, kirol aniztasuna sustatzeko, ibilketa nordikoa eta patinaje saioak ikusgai jarri ditu.

Aurten, lehenengo aldiz, Endoia eta Lasturko mendi lasterketak burutu dira eta kirol-ekimen guztiak aipagarriak diren arren, badago bat bereziki aipatu nahi duguna, nesken pala txapelketa hain zuzen. Kirol-praktika osasungarriaren bitartez, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko tresna izan daitekeelako, iazko esperientzia oso ona izan eta aurten ere arrakasta handia izaten ari dena.

Gure inguruneaz gozatzeri ere gero eta lagun gehiago etorri dira, geoparkearen proiektuak eta done Jakue bideak hartu duen erakarpenean indarrari esker. Bertakoen eta bisitarien artean sortzen den giroa ere aberatsa da guztientzat.

Euskal jaiak, giro ederrean, herritar ugari batu gara Zuhatzarekin batera antolatzen den egunean uda garaia bukaera alai emateko. Esan dezakegu azkenean uda osoa horrela igaro zaigula, elkarrekin lan eginaz, kultur eta kirol egitarau erakargarri eta aberasgarri bat guztion artean osatuz.

Uda garaian herriak duen bizitasun berbera mantenduz, saia gaitzeen herri aniztasuna eta jarrera partehartzailea urte osora zabaltzen.

Una vez pasado el verano, como introducción de esta revista, queremos hacer una pequeña valoración de los acontecimientos que hemos vivido a lo largo del mismo. Aunque al principio el tiempo no ayudó demasiado, podemos decir que hemos disfrutado de unos meses de verano realmente buenos.

Con la participación y colaboración de distintos grupos y entidades del pueblo, se han llevado a cabo diversas actividades en torno a Pablo Sorozabal y Jorge Oteiza, ligados ambos de manera importante al pueblo de Deba.

Una vez subsanadas las primeras dudas y preocupaciones, el nuevo servicio de socorrismo ha sabido realizar su trabajo de forma eficiente y normalizada.

Las alegaciones habidas y la falta de determinación por parte de Madrid, han impedido la posibilidad de que el ayuntamiento procediese a la concesión de explotación de la taberna Ondar Gain. Afortunadamente, las gestiones realizadas en la capital española hacen pensar que el tema ha entrado en vías de solución a corto plazo.

Gracias otra vez al trabajo colectivo, en las distintas fiestas veraniegas se han potenciado programas de alto contenido y participación.

Con la colaboración de la Diputación, se ha montado un servicio especial de autobuses durante las fiestas de "Kopraixak".

El objetivo de la Comisión de fiestas de San Roke ha sido la elaboración de un programa lo más amplio y diverso posible, respondiendo a todos los gustos y deseos, tanto en horas diurnas como nocturnas.

Este verano, el número de actividades deportivas programadas ha sido muy importante y por primera vez, los jóvenes han tenido la oportunidad de practicar la natación en la piscina natural de Mutriku.

Asimismo y con el objetivo de potenciar diferentes disciplinas, la Comisión o Mesa de deportes de Deba ha querido visualizar la marcha nórdica o el patinaje.

Por primera vez, este año se han organizado las carreras de montaña de Endoia y Lastur, y aunque todo deporte es digno de tener en cuenta, queremos resaltar especialmente el torneo de paleta femenino, una experiencia que fue muy positiva el pasado año y que también está logrando un gran éxito en la presente edición, una actividad sana que ayuda a la igualdad de géneros.

Debido a la atracción de Deba y su entorno, cada vez se reciben más visitantes interesados en el proyecto del Geoparque y en el recorrido del Camino de Santiago, enriqueciendo a su vez las relaciones que se crean entre esos visitantes y los vecinos de Deba.

Para dar nuestro adiós al verano, en un inmejorable ambiente, nos hemos juntado "todo el pueblo" para celebrar y gozar del día de Euskal Jaia, que junto con Zuhatza se organiza todos los años.

En definitiva, podemos decir que se ha tratado de un buen verano y que con el trabajo y la colaboración de todos/as, hemos logrado un programa cultural y deportivo atractivo y enriquecedor.

# Indarkeria matxistari aurre egiteko Debako protokoloa

Berdintasun politika publikoen ardatz nagusietariko bat, emakumeenganako indarkeriari aurre egitea da. Emakumeen eta gizonen artean dagoen berdintasun ezaren adierazpen larriena, indarkeria matxista da. Hau dela eta, 2009 urtean Deban herri mailako protokoloa garatu zen; eraso sexualen eta tratu txarren biktima diren emakumeen arretan parte hartzen duten zerbitzuen arteko koordinazioa eta esku hartzea hobetzeko helburua zuelarik.

Aurten, otsailean, indarkeria matxistari aurre egiteko osatua dagoen lantalde teknikoa indartu, funtzionamendua hobetu eta arreta protokoloa bultzatzeko, protokoloan parte hartzen duen lantaldeari formazio saio batzuk eskaini zaizkio.

## Protokoloaren helburu nagusiak:

- Genero indarkeriaren edo sexu erasoen biktima diren edo izan diren emakumeei arreta hobetzea.
- Deban genero indarkeriaren aurkako kultura sortzea

## Prozesu honetan parte hartzen duten eragileak hurrengoak dira:

1. Debako gizarte langileak
2. Debako eta Itziarko osasun zentroa
3. Debako Udaltzaingoa
4. Debako berdintasun teknikaria
5. Mendaroko ospitalea
6. Eibarko ertzaintzaren komisaldegia



Hurrengo hilabeteetan lantalde teknikoaren funtzionamendua eta koordinazioa hobetze aldera, lantalde teknikoan hurrengo gaiak landuko dira:

- Erakundeen artean dagoen koordinazioa aztertu, indarguneak eta ahulguneak detektatzeko
- Indarguneak mantendu eta ahulguneak hobetzeko neurriak proposatu
- Lantalde teknikoaren formazio beharrak detektatu formazio plan bat egiteko

## Aldi berean Debako udaleko politikariekin:

- Genero indarkeriaren aurkako kultura sortzeko eta sor daitezkeen indarkeria egoerei erantzun proportzionatua eta egokia emateko udal adierazpenak eta ekintza publikoak landuko dira.
- Debako udalerrian genero indarkeriarengatik edo sexu erasoengatik emakumeek jasaten dutenari aurre egiteko prozedura landuko da.

## Debako larrialdietarako telefonoak:

- Gizarte zerbitzuak: 943 192 933 • Udaltzaingoa: 943 608 040 • Ertzaintza: 943 531 700
- Arretarako 24 orduko telefonoa: 900 840 111 • Espainiako Ministerioa: 016

## PROTOCOLO CONTRA LA VIOLENCIA MACHISTA

En 2009 el Ayuntamiento de Deba desarrolló un protocolo contra los malos tratos para atender a las víctimas de agresiones sexuales. En febrero de 2013 se ha fortalecido la aplicación de dicho protocolo ofreciendo unos cursos al personal encargado de estos servicios.

Para ello, y con la finalidad de ofrecer una mejor atención a las víctimas de la violencia y de las agresiones sexuales, así como crear en Deba una cultura contra la violencia, se ha organizado toda una maquinaria en la que intervienen los/as trabajadores/as de los servicios sociales de Deba, los centros de salud de Deba e Itziar, los guardias municipales, la técnica de igualdad de Deba, el hospital de Mendaro y la Ertzaintza de Eibar.

# Alzheimerrari aurre eginez

Ekaineko “Deba Berri”ren alean, Deba Alzheimerrarekiko herri solidario bilakatu zela adierazi genuen eta esperientzia trukerako, gizarte zerbitzuko teknikoek bitartekaritza orientaziorako eta orokorrean gaixotasunaren inguruko kezka argitzeko guneak jarriko zirela.

Gizarte zerbitzuetatik helburu hauek lantzen jarraitu da AFAGIrekin elkarlanean (Gipuzkoako alzheimerdunen eta bestelako demenzia-dunen senitartekoen eta lagunen elkarte) eta bi saiotan banatutako jardunaldi labur baina mamitsuak antolatu dira.

Azaroaren 20an Oskar Tejedorrek zuzendutako “Cuidadores” film dokumentala proiektatu da. Oso harrera ona izan du filmak, aretoa gainezka egonik. Alzheimerra duten gaixoak zaintzen dituzten eguneko errealitatea agertzen da bertan eta zaintzailearen animoek nahiz egunerokotasunean gaixokiko harremanek duten garrantziaz jabetzeko aukera eman digu besteak beste.

Gaixok alzheimerra oso garatuta edukita ere, askotan hitz egiteko gai ez izanda, zaintzaileak nola ezagutu eta maitatzen dituzten agertzen da, sentimenduak nola adierazten dituzten, etab.

Jarraian izandako jendearen argipen txanda, hunkigarria eta interesgarria izan da; hereditarioa ote den, noiz hasten den, eta beste hainbat kezka eta galdera planteatuz.

Azaroaren 27an AFAGI-k hitzaldia eman du, elkarte honen nondik norakoak azalduz, nola etxeetan zerbitzua ematen duten, mugikortasun urria dutenei lagunduz eta baita nola Irun, Eibar eta Donostian dituzten egoitzetan psikoestimulazio tailerrak antolatzen dituzten Alzheimerra lehen fasean dutenei funtzio kognitiboak estimulatzeko eta egunerokotasunerako gaitasun funtzionalak lantzeko, autonomia ahalik eta gehien eskura dezaten.

AFAGIren nondik norakoak azalduta, Alzheimerrak gaixoengan duen eraginez hitz egin ondoren, zaintzaileen esperientziaz mintzatu dira, egoeraren gordinaz baina baita zenbateraino asetzen duen honek azalduz.

Zaintzailearen umoreak eragina duela gaixoaren jarreran: erasokor badago, zaintzailea urduri edo nekatuta dagoelako izan daitekeela, gauza asko ulertzeko ez baditu ere, keinu nahiz hizkuntza tonua interpretatzeko gai delako besteak beste.

Duela 11 urtetik, Deban NAGUSILAN elkarteak ere helduekin lan egiten du. 1000 boluntario dira, guztiak ere helduak. Beraien aisialdia pertsona nagusiei lagundu, animatu eta entretenitzeko erabiltzen dute. Urtean zehar, astean bitan, Eguneko Zentroko nagusiekin zenbait jarduera egiten dituzte, lan eredu garria eginez.



## HACIENDO FRENTE AL ALZHEIMER

En el pasado número de esta revista, se informaba sobre la declaración de Deba como pueblo solidario con el Alzheimer. Desde los servicios sociales del Ayuntamiento se informaba que se pondrían en marcha una serie de actividades para ayudar a paliar esta problemática. Siguiendo estas pautas, el 20 de noviembre se proyectó el documental “Cuidadores” de Oscar Tejedor, un reportaje sobre la realidad de quienes viven el día a día con los que padecen este mal. El 27 de noviembre AFAGI daba una conferencia sobre los servicios que esta asociación presta en Gipuzkoa.

Por otra parte, destacar que en Deba, Nagusilan, formada por voluntarios locales, lleva 11 años trabajando desinteresadamente con los/as ancianos/as y con quienes sufren de Alzheimer.



# MUSIKA ESKOLA

Legegintzaldia hastearekin batera, udal patronatuen gaineko hausnarketak egiteko konpromisoa hartu genuen. Deba musikal patronatuaren barnean dagoen musika eskolari ekin genion.

Musika eskola 325 ikaslez eta 15 irakaslez osatuta dago, eta herriko bizitzan ekarri handiak egin dituela zalantzarik ez dago, musika beti izan baita edozein jai giroren adierazgarri. Hala ere, musika eskolan hainbeste urtez landutako metodologiak eta egoera batzuk hausnartzea eta zuzentzea eskatzen zuten.

Bide horretan, hauek izan dira helburu nagusiak:

- Zuzendaritza talde eraginkorra osatu eta musika eskolak dituen organoak funtzionatzen hastea: zuzendaritza taldea, klaustroa eta eskola kontseilua.

Horretarako **eskolako barne araudia aztertu**, eta guztien ekarpenak jasoz (patronatua, irakasle, ikasle eta gurasoak), **berritu eta onartu dugu**. Musika hezkuntza arlo batenez eta duen garrantzia kontuan hartuz, orain arte existitzen ez zen ikasketa buruaren figura jaso da araudian.

- Langileen kezka, eskubide, arduraren eta, oro har, aspaldiko egoera kudeatu eta zuzentzea.

Langileen artean dauden errealitate ezberdinak, musika eskolak duen eskaera eta arlo ekonomikoa ere kontuan hartuz, **hitzarmen bat adostu eta sinatu da**. Ibilbide guztia patronatuaren oniritziarekin eta musika eskolako zuzendari, langile, eta langile ordezkariekin egin da.



## ESCUELA DE MÚSICA

Al comenzar la presente legislatura, el Ayuntamiento se comprometió a realizar una evaluación sobre la situación del patronato Deba Musikal. La metodología de trabajo aplicada a lo largo de los años y algunas situaciones concretas necesitaban de una reflexión y solución. En este sentido, los objetivos han sido la creación de una sólida y activa dirección y la puesta en marcha de los diferentes órganos de la escuela: la dirección, el claustro y el consejo escolar. Igualmente, el gestionar y resolver las dudas, preocupaciones y derechos de los/as trabajadores/as.

Con el fin de resolver las anteriores carencias, se ha renovado y aprobado un nuevo régimen interno, y se ha firmado un convenio teniendo en cuenta la demanda de la Musika Eskola, las diferentes realidades de los/as trabajadores/as y la realidad económica. Todo ello se ha realizado con el visto bueno del patronato, de la dirección, de los/as empleados/as y de los/as representantes de estos/as últimos/as.

# Debako garapen jasangarrirako 2013-2016 ekintza plana



Udalak Debako garapen jasangarrirako 2013-2016 ekintza plana idazteari ekin zion uztailean. DEBEGESAren laguntzarekin egiten ari garen lan honek Tokiko Agenda 21eko ekintza planaren berrikuspena hartu du abiapuntutzat, 2012ra arte indarrean egon dena.

Ekintza plan berriak 2013-2016 urteetarako ildo estrategikoen eta proiektuen definizioa planteatuko du, nahiz eta Debaren etorkizunaren gaineko epe luzeagoko “ikuspena” izango duen kontuan.

Plan honek Debako garapen jasangarriaren motor izango diren proiektuetan eragin nahi luke. Bere balioa horretan datza, hain zuzen ere: proiektu horiek identifikatu, akordio zabal bat lortu eta aurrera eramateko konpromisoa hartu. Horiek egin ahal izatea izango da plan honen baliorik handienetakoa.

Lana faseka ari gara burutzen. Lehendabiziko fasea Debaren gaur egungo diagnostikoarekin amaitu da, egindako azterketa desberdinetatik abiatuta gauzatu dena. Momentu honetan diagnostiko proposamen bat daukagu esku artean (Ahuleziak, Mehatxuak, Indarguneak eta Aukerak), zeinari ekarpenak egiteko aukera dagoen [info@deba.net](mailto:info@deba.net) helbide elektronikoan.

Bigarren faseak, orain lantzen ari garenak, Debaren etorkizunaren gaineko ikuspena definitzeko helburua du eta ikuspen horren arabera planteatuko dira datozen urteetarako helburuak, ildo estrategikoak eta ekintzak.

Plana egiteko lan metodo desberdinak erabiltzen ari gara: datuen eta Debaren gaineko informazio garrantzitsuen bilketa eta azterketa, iritziak jasotzeko galdesorta kualitatiboak eta herritarren partaidetzazko saioak.

Oraingoz ezin da ildo estrategikoen eta behin-betiko proiektuak izango direnen gaineko ondoriorik atera; hala ere, jasotako iritzietatik abiatuta, orain arte lanean parte hartu dutenen interesa pizten duten gaiak zehazten doaz. Zehatzak izateko pretentsiorik gabe, hona gai horietako batzuk.

Kezka argia sumatzen da garatu beharreko udalerrri ereduaren inguruan. Gai hori bideratzeko gakoak izan daitezke bi galdera hauek: zenbateko hazkundea izatea nahi dugu eta zenbatekoa da posible? Eta non?

El Ayuntamiento, con la colaboración de DEBEGESA, inició en el mes de Julio la redacción del Plan de Acción para el Desarrollo Sostenible de Deba para los años 2013-2016, aunque tendrá en cuenta una “visión” del futuro de Deba a más largo plazo.

Este Plan pretende incidir en aquellos proyectos que van a actuar como motores del desarrollo sostenible de Deba. Su valor consistirá precisamente en identificar tales proyectos, lograr un acuerdo amplio y tomar el compromiso para llevarlos adelante.

Se percibe una clara preocupación por el modelo de municipio que debería seguir el desarrollo de Deba. Dos preguntas pueden ser claves para enfocar esta cuestión: **¿cuánto crecimiento es deseable y posible?**, y **¿dónde se va a producir ese crecimiento?**

Galdera erabakigarri horien aurrean jarrera desberdinak ageri dira. Batzuk ahalik eta hazkunde txikiaren alde egiten dute, herriaren hazkunde naturalari erantzungo diona. Beste batzuk gaur egungo planeamenduaren arabera, Debak dituen aukeren arabera hirigintza hazkundera defendatzen dute.

Debako herritarrei arrazoizko prezioa izango duten etxebizitzak eskaini ahal izateko formula desberdinak sortu beharraz, adostasun handiagoa ikusten da. Batez ere gazte jendea herrian mantentzeko interesa nabarmentzen da.

Beste iritzi partekatu batek jarduera ekonomiko sustatzearen behararekin du zerikusia: industriarekin, 3. sektorearekin eta nekazaritza zein abeltzaintzarekin lotutako enplegu sorrera bultzatu behar da (baita bertako produktuen kontsumoa ere).

Hirugarren sektorearen barruan turismoarekin lotutako aukeren gaineko aitortza egiten da; euskal kostaldeko geoparkearen gaineko interesa nabarmentzen da, Debako Santiagoko bidearen barruan daukan posizionamendua, turismo ekintzailearekin lotutako aukerak (batez ere ur kirolekin lotutakoak: surfa, kayak-ak, e.a.)...

Adostasun handia, baita ere, herriko ondare natural eta kultural paregabearen aniztasun eta kalitatearen inguruan; baita ondare hori mantendu eta balioan jartzeko apustu egin behararen gainean ere. Ondare inmateriala ikertu, jaso eta transmititzearen inguruan ere bai. Ildo horretan lan egiteko aukera ugari jaso dira: Debako ibaia, Santa Katalina, historiaurreko ondarea, e.a.; baina baita ere, herriaren historia soziala, kultura, ohiturak, hizkuntzaren galera zein berreskurapen prozesuak, toponimia,...

Deba, hirigintza-kalitatean, oro har, eredu izan dadin proposamenak jaso dira: ekipamenduak, eskuragarri egongo diren zerbitzuak eta, oro har, garbi, apain, ... egongo diren tokiak.

Udalerraren identitateari dagozkionak ere bai: herri euskalduna egituratzeko bidean, adosten den garapen ereduak horri ere erantzun behar diola diotenak.

Herrian oraintsu egindakoei dagokienez, zenbait azpiegitura eta ekimenek izan duten balorazio altua nabarmenduko dugu. Adibidez, hezkuntzarako azpiegitura berriak, kirol kaia, pasealekuen luzapena padura eta Casa Campo inguruan, Agirre jauregia, e.a.

Alde txarrean uda garaian aparkaleku faltarena ipini behar da, hondartzaren lehen lerroaren irudi kaxkarra, ondarearen mantenimendu falta eta balioan ez jartzearena, kiroldegiaren egokitzapen arazoak, kultur jardueretarako azpiegitura gabezia, herriaren garapen eremuan euskararen zentralitate falta, e.a.

Gai horiek guztiak datozen parte hartze saioetan landuko dira, Udaletxean bertan zein herritarrentzako parte hartze saio irekietan, eta kontuan izango dira planteamendu estrategikorako eta azkeneko ekintza plana egiteko.

Orain arte herritarren parte hartze saio bat egin da eta, laster, beste bi egitea aurreikusten da. Horietan Debako herritar guztiak parte har dezakete. Gainera, ekarpenak egin nahi dituztenek [info@deba.net](mailto:info@deba.net) helbide elektronikora idatziz egin ahalko dituzte. Burutzen ari garen lan honen bertsio laburtua [www.deba.net](http://www.deba.net) web orrian topa daiteke.



Entre las opiniones recogidas, hay temas que concitan el interés de la gente, como la necesidad de generar diversas fórmulas que posibiliten tener en el municipio vivienda asequible, la necesidad de promover actividad económica, el reconocimiento general acerca de las oportunidades ligadas al turismo (Geoparque de la Costa Vasca, Camino de Santiago,...), el apostar por la conservación y puesta en valor del patrimonio natural y cultural de la localidad respondiendo a una identidad euskaldun, las propuestas para lograr que Deba sea una localidad modélica en cuanto a la calidad urbana, etc.

En la parte negativa, se recoge la falta de aparcamiento en la temporada estival, la mala imagen de la primera línea de playa, la falta de conservación y puesta en valor del patrimonio, los problemas de adecuación del polideportivo o la falta de infraestructura para actividades culturales.



# Udal ekonomia

Etxeetara orain arte iritsi diren azken udal errebitetan bezala, oraingoan ere, udaleko ekonomia arloko informazioa helaraztea garrantzitsua dela deritzogu, herritarrak informatuta edukitzeko helburuarekin eta gardentasunaren alde.

Udaletxeko sarreretan garrantzitsuak dira, besteak beste, udal zerga, tasa eta prezio publikoak, eta azaroaren 7ko plenoan onartu ziren 2014. urterakoak, Alternatiba, EA, Aralar, Ezker Anitza eta Itziar Herria Sortzenen aldeko bozkarekin.

**Zerga, tasa eta prezio publikoak** ez dira dirua biltzeko tresna bakarrik, politika ekonomiko aurrerakoiak, herritarren bizi baldintzak eta justizia sozialean sakontzeko tresnak ere badira. Horregatik garrantzitsua da ekitatea, progresibitatea eta birbanaketaren alde egitea. Gehien duenak gehiago ordaintzea, gutxien duenaren mesedetan.

Irizpide hauekin, eta udal zerbitzuen kostuak betetzeko ardurarekin egungo egoerari egokitutako ordenantza fiskalak onartu dira.

Orokorrean urteko KPIa %2,7 igo bada ere, egoera ekonomikoak herritarrengan duen eragina kontuan izanik, **zerga eta tasa nagusienak, ohizko etxebizitzaren IBI-a (kontribuzioa) eta zaborra hain zuzen ere, ez igotzea erabaki du udalbatzak. Bestalde ohizko etxebizitza ez diren kasuetan aurreko urtean aplikatu zen errenergua ere ez da igoko, %75ean mantenduz.**

## SALBUESPENAK

- Ibilgailuen zergan oinarritzko zilindrada dutenei KPI igoko zaie, baina hortik gorakoei %5, %7 eta %10 artean igoko zaie zerga.
- Terrazen lur zoruaren okupazioak %10eko igoera izango du, inguruko herrietako prezioekin poliki poliki parekatzeko helburuarekin.
- Eguneko zentroko tabernako prezioetan ohiko erabiltzaileei KPIa igoko bazaie ere, gainontzekoen prezioak egokitu egin dira, bideragarritasuna bilatuz.
- Trenbideko OTA zerbitzua 5 zentimo igoko da.

## HOBARIAK

- Udalak aurreko urtean ezarritako hobariak mantenduko ditu.
- Ingurumenaren aldeko neurri gisa, auzo eta auto konpostean parte hartzen duten herritarrek zabor tasetan %15eko hobaria eskatzeko aukera izango dute.



## ECONOMÍA MUNICIPAL

En el pleno del pasado 7 de noviembre, se aprobó el apartado de tasas e impuestos municipales para el próximo año 2014. Conscientes de la problemática situación económica de la ciudadanía, el pleno aprobó que a pesar de la subida del IPC en un 2,7 %, las tasas e impuestos referentes a contribuciones urbanas y basuras no subirán.

En lo referente al impuesto sobre vehículos, se aprobó que la subida de dicho impuesto para vehículos de pequeña cilindrada será la misma que la del IPC, mientras que en los de gran cilindrada oscilará entre el 5, el 7 o el 10%, dependiendo de la cilindrada. Asimismo, el impuesto de terrazas subirá un 10%, se adecuarán los precios del bar de los jubilados y los servicios de OTA de la estación subirán 5 céntimos.

Por último, se aprobó que quienes tomen parte en el compostaje de residuos orgánicos tengan opción a solicitar un descuento o mejora en las tasas de basuras del 15%.



**BERRIKUNTZAK**

• Herritarrentzako eta gure herrira hurbiltzen diren bisitariarentzako zerbitzuak hobetzeko asmoz, **Calbeton zumardia, Markiegi, Mariñel, Bastinuixa eta Monreal kaleak, OTA gune izango dira.**

• Orain arte bezala **bertakoek ez dute ezer ordaindu beharko gune berri horretan.** Bisitariarentzat aldiz, Nafarroa plazan ordaintzen zuten prezioak %14ko jaitziera izango du, gune berriak ere prezio berbera izanik, 1,50€/orduko.

**2013ko AURREKONTUEN KITAPEN AURREIKUSPENA**

SARRERAK	Aurrekontua	Igoerak	Aurrekontu definitiboa	Kitapena Urria
<b>OPERAZIO ARRUNTAK</b>	<b>6.464.518,00 €</b>		<b>6.464.518,00 €</b>	<b>5.396.161,05 €</b>
1.Zergak	1.994.500,00 €		1.994.500,00 €	1.851.643,50 €
2.Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga	189.891,00 €		189.891,00 €	277.397,05 €
3.Tasak eta bestelako sarrerak	1.080.003,00 €		1.080.003,00 €	831.044,81 €
4.Transferentzia arruntak	3.143.674,00 €		3.143.674,00 €	2.433.465,85 €
5.Ondareen gaineko sarrerak	56.450,00 €		56.450,00 €	2.609,84 €
<b>KAPITAL OPERAZIOAK</b>	<b>92.400,00 €</b>		<b>1.500.683,52 €</b>	<b>746.050,66 €</b>
6.Inbertsio errealeen besterenganaketa	86.400,00 €		86.400,00 €	
7.Kapital transferentziak		332.000,00 €	332.000,00 €	744.073,00 €
8.Aktibo finantzarioen aldea	6.000,00 €	1.076.283,52 €	1.082.283,52 €	1.977,66 €
9.Pasibo finantzarioen aldea			0,00 €	
<b>SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>6.556.918,00 €</b>	<b>1.408.283,52 €</b>	<b>7.965.201,52 €</b>	<b>6.142.211,71 €</b>
GASTUAK	Aurrekontua	Igoerak	Aurrekontu definitiboa	Kitapena Urria
<b>OPERAZIO ARRUNTAK</b>	<b>6.063.881,00 €</b>		<b>6.063.881,00 €</b>	<b>4.822.302,14 €</b>
1.Langileen gastua	1.767.922,00 €		1.767.922,00 €	1.429.372,46 €
2.Ondasun arruntan eta zerbitzuen erosketa	3.349.178,00 €		3.349.178,00 €	2.822.586,16 €
3.Gastu finantzarioak	58.800,00 €		58.800,00 €	25.849,48 €
4.Transferentziak	887.981,00 €		887.981,00 €	544.494,04 €
<b>KAPITAL OPERAZIOAK</b>	<b>493.037,00 €</b>		<b>1.901.320,52 €</b>	<b>754.571,57 €</b>
6.Inbertsio errealak	152.037,00 €	1.000.000,00 €	1.152.037,00 €	173.074,71 €
7.Kapital transferentziak			0,00 €	
8.Aktibo finantzarioen aldea	6.000,00 €	59.093,00 €	65.093,00 €	64.902,11 €
9.Pasibo finantzarioen aldea	335.000,00 €	349.190,52 €	684.190,52 €	516.594,75 €
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>6.556.918,00 €</b>	<b>1.408.283,52 €</b>	<b>7.965.201,52 €</b>	<b>5.576.873,71 €</b>

2013ko aurrekontuetan, sarrera eta gastu arruntari dagokionez, **sarrerek zertxobait gora egin dute**, eta **gastuak kontrolatzea lortu da**.


Inbertsioei dagokionez, aurrekontuaren aterpetzea eta futbol zelaiko aldagelak egiteari ekin diogu, eta horiek dira, gastuetan 6. kapituluari jasotzen diren gastu igoerak, sarreretan 8. kapituluari jasotako kredituarekin egingo direnak.

Hala ere aipatu behar da, inbertsio horiek Eusko Jaurlaritzako, Foru Aldundiko eta Futbol Federazioko diru laguntza garrantzitsuekin finantzatu direla, eta horiek dira 7. kapituluari jasotzen diren 744.073,00 euroak.

Bestalde, gastuetan aipatutako inbertsioez gain, 8. kapituluari langileen pagaren aurrerapena, eta 9. kapituluari 2009 eta 2012 urteko fondo foralaren itzulketa jasotzen dira.

Hori guztia kontuan hartuta, urtea **340.000 euro inguruko gerakinarekin bukatzea aurreikusten da**.

# Aparkalekuen aurreproiektua




Debak orokorrean, duen aparkaleku beharra ezaguna da, eta aspalditik pairatzen dugun arazo honi irtenbidea emateko asmoz, **pilotaleku eta polikiroldegi artean dagoen erabilpenik gabeko lur zoruan aparkalekua egiteko aurreproiektua aurkezten dugu**. Eremu horri balio erantsia emango diogu horrela.

Bertan, lau solairuetan, **141 aparkaleku** egitea proposatzen da, batzuk itxiak eta besteak, lerro artean, irekiak.

Proiektuaren finantzaketa beregaina izan dadin, portzentaje bat baldintzapeko kontzesioan eskainiko da, aparkalekua eraiki dadin, eta besteak erabilpen errotatiboa izango dute, mantenu gastuak ordaintzen lagunduko dutenak.

Eraikina, herri gunean kokatzen denez, edozein herritarrek eskura izan dezake aparkalekua.

## ANTEPROYECTO DE APARCAMIENTOS



Consciente de la necesidad de plazas de aparcamiento, el Ayuntamiento de Deba presenta un anteproyecto para la realización de un aparcamiento en el solar situado entre el frontón Aldats y el polideportivo municipal.

El anteproyecto presentado cuenta con 4 plantas y una capacidad total de 141 plazas. De éstas, unas serían rotativas, es decir, abiertas al público en general con tarifa horaria, y otras serían ofertadas a los particulares con una serie de condiciones económicas.

Con este proyecto se consigue también la recuperación estética y medioambiental de dicha zona.




Aparkaleku gainean **berdegunea berreskuratuko da** eta egun auzoak ez duen aisialdirako gunea sortuko da.

Plaza berria eta polikiroldegiaren sarrera zuzenean lotuko dituzte **pilotaleku eta aparkalekuko igogailuek**.

Era berean, 2014ko bigarren seihilabetearen polikiroldegiaren berriztapena aurrera eramatea aurreikusten da eta berriztapenarekin batera, aparkalekuak eta igogailuek, polikiroldegiaren erabilpena areagotzen lagunduko lukete.

Azaroaren 12an Hirigintza batzordeak egin zuen bileran aurkeztu zen aurreproiektua eta, 2014ean, Udaletxeak behar diren pausoak emateari ekingo dio, proposamen hau konpartitu eta garatzeko asmoz.





# Garenaz hausnartzen

Gure zaharrek, guraso eta haien lagunek, ikastolak sortu zituzten; eta gau eskolak; eta legeak, euskara biziberritzeko, euskaraz bizitzeko... Nabarmen hobetu dugu, ikaragarri, euskararen ikuspegitik. Baina begibistakoa da, halaber, ez direla gure aurrekoen espektatibak bete-betean bete. Hizkuntza gaitasunean gora egin dugun arren, erabileran ez dugu hainbesteko irabazirik izan.

Momentua iruditu zaigu, administraziotik ez ezik, herritarren aldetik ere (lehengoek egin zuten moduan), geldialditxo bat egiteko eta non eta nola gauden hausnartzeko, pentsatzeko. Eta are gehiago, aurrera begira, nondik norakoez hitz egiten hasteko.

Eskolak ere bat egin du hausnarketa behar horrekin eta, ondorioz, bi mailatan egin dugu ahalegin hori: eskola komunitate mailan batetik (bereziki gurasoei begira) eta herri mailan bestetik.



*Paula Kasares*

**Eskola mailako saioak Paula Kasaresen eskutik etorri dira** (filologo, soziolinguista eta antropologoa, Nafarroako Unibertsitateko irakaslea; Iruñeko eta Irurritako euskararen galtze eta berreskuratze prozesuak ikertu ditu) **eta gurasoek, euskaraz jakin ala ez, seme-alaben hizkuntzaren ikasketa prozesuan edota hizkuntza-portaeretan nola lagundu dezaketen azaldu digu** eta bereziki azpimarratu ditu jarrera eta motibazioa, euskara kualitatiboki gauza positiboekin, balore batzuekin lot dezaten.

**Herri mailako hausnarketa bideratzeko, berriz, bi hizlari izan ditugu: Pako Aristi** (ez du aurkezpenik behar) eta **Lorea Agirre** (euskalgintzan, erreferentziazko pentsalari eta eragile da; kazetari eta Mondragon Unibertsitateko irakasle). Pako maila politikoan aritu zaigu gehiago; hizkuntza-inposizioaz eta normalizazioaz eta menpekotasunetik ateratzeko **Estatu propio baten beharraz**. Loreak galderak planteatu ditu: zer eta nor garen eta ba ote garen nor. Eta **nor izateko hizkuntza erdigunean jartzen eta kontzientziaketa lantzen jarraitu beharraz aritu da**.

Interesgarriak izan dira bi ikuspegiak. Nolanahi ere, izate hori bera lantzeko zein euskara hizkuntza nagusia izateko bidean jorratu beharreko kontuen artean, garrantzia eman diote hirurek kulturari: **kulturak, euskarazko kulturak (kantagintzak, literaturak, antzerkigintzak,...), ahalbideratu edo, neurri batean behintzat, elikatu egiten du euskal jendartea**. Erreferenteak sortzen ditu, idoloak, eta euskaldunon kohesiorako, identitate konpartitu baterako, harro sentitzeko, sustatu beharreko eremua dela esan zuten.

Euskaldun guztiok gara elebidunak. Gazte debarrek hiru edo lau hizkuntza jakingo dituzte. Euskaraz egitea edo beste hizkuntza batean egitea aukeratu egingo dute. Eta euskara aukeratuko badute, beste gauza askoren artean, kultura baten parte sentitzen direlako izango da. Euren izatea betetzen eta borobiltzen duelako izango da.

Zentzu horretan kultur jarduera diferenteak, erreferentzia berriak eta berritzaileak antolatzen saiatu da Euskara Saila azaro eta abenduko kultur programazioa egiterakoan.



*Pako Aristi*



*Lorea Agirre*



# Luzaro ikastetxean energia berriztagarrien instalakuntza **abian ipiniko da**

DEBIKER proiektuaren baitan, beste proiektu batzuren artean, Debabarrenean mini eolika eta eguzki plaken instalazio mistoa jasotzen duen proiektu pilotua gauzatzea aurreikusten da. Proiektu honen helbururik nagusienak honako hauek dira:

- CO2 isurien murrizketa.
- Autokontsumoa sustatzea.
- Teknologiaren egokitasuna aztertzea.
- Instalakuntza estandarraren ezaugarriak definitzea.
- Energia berriztagarrien instalakuntza misto batek hiri gunean lortu ditzakeen errendimendu energetikoak ezagutzea.
- Errendimenduen jarraipena egiteko sistema testatzea.
- Hiri gunean instalakuntza mini eoliko bat ipintzeko erregulazioa aztertzea.
- Indarrean ipini den lege berriarekin inbertsioaren itzulera eta errendimendu ekonomikoa.



Ekimen hau aurrera eraman ahal izateko Debabarreneko hogeiei eraikin publiko aztertu dira. Eraikin horietan aztertu diren alderdi nagusiak honako hauek izan dira: orientazioa, haizea, kontsumoak eta eraikinaren ezaugarriak.

Azterketa horrek energia berriztagarrien instalakuntza Luzaro ikastetxean ipintzeko egokitasuna aldarrikatu du. Bertan ipiniko den instalakuntza, mini eolika bat eta 14 modulo fotoboltaikok osatuko dute. Aurreikuspenen arabera, guztira, gutxi gora behera, 4200 kWh eta urteko ekoiztuko ditu.

Debabarreneko udalekin eta konkretuki Debako Udalarekin elkarlanean, Debegesak sustatu du proiektua, hezkuntzak ere proiektuarekin bat eginez. Egitasmo hau aurrera eraman ahal izateko Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako diru laguntza jaso da.

## Puesta en marcha de una instalación de energías renovables en Luzaro ikastetxea

Dentro del proyecto DEBIKER, y entre otros, se va a proceder a la puesta en marcha de un proyecto piloto de energías renovables; en concreto, una instalación mixta eólica y de placas solares. Para llevarlo adelante, se han analizado 20 edificios públicos de Debabarrena, y tras comprobar la orientación, viento, consumos y características del edificio, se ha creído conveniente instalar en Luzaro Ikastetxea una mini eólica y 14 módulos fotovoltaicos.

El proyecto, impulsado por Debegesa y con la colaboración del Ayuntamiento de Deba, posee asimismo un marcado carácter educativo. El plan ha contado igualmente con las ayudas económicas de la Diputación Foral de Gipuzkoa y del Gobierno Vasco.

# Gure ondarea balioan jartzen ari gara herri ondarea eginez

Gure herriak duen ondarea balioan jartzea, kultura indartzea eta birsortzea udalaren erronka nagusietako bat da, ondarea bere zentzu zabalenean ulertuta. Balioan jarriz lortuko dugu mantentzea, indartzea, eta herri bezala etorkizuna eraikitzea.

Balioan jartzeko lehenengo urratsa, gure herriko historia eta istorioak ezagutzeko da, herritarrok dugun altxor oparoaz jabetzeko, gozatzeko eta maitatzeko, gure herrira datozen guztiei ere, era berean, erakutsi eta gozarazteko.

Bide horretan, ekimen ezberdinak egin eta egingo ditugu.

• Euskal Herriko eta gure herriko kulturaren, **Pablo Sorozabalek** eta **Jorge Oteizak** izan duten garrantzia eta eragina gogora ekarri dugu, gure herriko musika zaletasuna eta arte eskolaren erreferentzialtasuna plazaratuz.



• Gure herriko historia eta ondarea ezagutzeko aukera emango duten **panelak ezarri dira herriko hainbat txokotan**. Bertokoztat eta bai kanpotik datozenentzat ere, herriko bisita egiteko proposamen bat izan nahi du egitasmo honek, hori dela eta panelak euskaraz eta gaztelaniaz ez ezik, frantsesez eta ingelesez ere badaude.

• Dugun paraje eta inguru paregabeaz gozatzeko aukera ematen duen **Talaia ibilbideak** etena izan zuen gure herrian proiektua martxan jarri zenetik. Debara ibilbide hau iristeak duen garrantzia kontuan hartuta, eta Gipuzkoa osoa zeharkatzen duen ibilbidea izanik, proiektuarekin jarraitzeko eskaera egin dugu. Eskaera kontuan hartu du Foru Aldundiak eta aurten ekingo dio proiektua definitu eta garatzeari.



• **Geoparkearen aldeko apustuan**, Geograpen elkarteak, hainbat ekimen burutu ditu urte guztian zehar, eta azaroaren 22an Aranzadirekin hitzarmena sinatzeaz gain, Kultur Elkartearen Euskal Kostaldeko Geoparkeak aurrera daraman dibulgazio-lanaren baitan kokatzen den Alberto Gorritiberea zinegileak zuzendutako “Karst” ikus-entzunezkoa estreinatu zuen ([www.geoparkea.com](http://www.geoparkea.com) webgunean eta [http://youtu.be/2\\_uC62NvSNY](http://youtu.be/2_uC62NvSNY) helbidean ikusgai dago).



• Geoparkeko lurraldearen aberastasuna ezagutzeko eta, bereziki, Debako ondare propioa erakusteko, **Geoparkearen txokoa** egitera goaz turismo bulegoan Foru Aldundiaren laguntzarekin.

• Bestalde, herri bateko kultura duen sorkuntza mailarekin ere parekatzen da, eta zentzu horretan gure herria anitza eta aberatsa dela ezin uka daiteke. Maila horretan gero eta indar gehiago hartzen ari den **AnimaDeba** dugu, aurten berrikuntza ugariarekin; besteak beste, Donostiako Zinemaldiaren zuzendaria eta, Gari, Euskal Herriko musikaren erreferentetako bat izango ditugu gure artean.



**Debako VI. animazio zinemaldia**  
VI. Festival de cine de animación de Deba



abenduak 26-30 de diciembre

Agirre Jauregiko Ispiluen Gela - Salón de los Espejos del Palacio de Agirre

• **ROTSKOPIA TAILERRA:**  
abenduaren 14, 21, 28an  
(larunbatak) • 9:30-13:30

- Abenduak 26 de diciembre:
- 18.00: Donostiako zinemaldiko zuzendariaren hitzaldia - **JOSÉ LUIS REBORDINOS**
  - 19.00: - HOTZANAK, FOR YOUR OWN SAFETY, 2013, 4' - FANTÁSTICO SR. FOX, 2009, 87'
  - 22.00: - *Gaztetxean*: PEUR(S) DU NOIR, 2007, 78' (VOS)
- Abenduak 27 de diciembre:
- 17.00: - THE WISH FISH, 2011, 74'
  - 19:30: - Kontzertua / Concierto: **AIN\_1**
- Abenduak 28 de diciembre:
- 17.00: - BLACKIE ETA KANUTO, 2012, 81'
- Abenduak 29 de diciembre:
- 19.00: - S.O.S MAMBA BEAT, 2013, 4'05" - MARY & MAX, 2009, 88' (VOS)
  - 22.00: Kontzertua / Concierto, **MAXI** Tabernan: **GARI**, "Ez da amaiera"
- Abenduak 30 de diciembre:
- 19.00: NONTZEFILMAK 2013, 10 URTE (Laburmetraiak / Cortometrajes)
  - ANIMADEBA TAILERRA / TALLER ANIMADEBA Gortina lehiaketa / Concurso de cortinillas



## AUZOKONPOSTA MARTXAN

Ongi ari gara, eta segi horrela!



Gero eta familia gehiago ari gara auzokonpostean. Ikastetxetik ere bisita antolatu da konposta zer den, nola egiten den, eta zertarako balio duen azaltzeko.

## MUGIKORTASUNA



Autobus zerbitzuak hobetzeko asmoz, Gipuzkoako Foru Aldundiak herritarrekin prozesu parte-hartzailea egiteari ekin dio.

Prozesuak 2014ra arte iraungo du, 3 fase izanik. 1 urratsa burutu da (diagnosia egitea, beharrak eta ekarpenak jasotzea), ondoren txostenaren zirriborroa egingo da, eta beste itzuli batean herritarrekin konpartituko da, eta behin betiko txostena egin ondoren 2014ko abenduan lizitazioa abiaraziko da.

## AUZOLANEAN IBAI GARBIKETA



Herritarrok ibaien bizitasunaz jabetu eta kontzientzia hartzea oso garrantzitsua da.

Deba ibaia auzolanean garbitzeko udaletik egindako deialdiak izan duen erantzunarekin oso pozik gaude eta eskerrak eman nahi dizkiegu guztiei.

## EMAKUMEAK KIROLEAN



Joan den urtean antolatutako I. pala txapelketarekin hasi zen emakumezkoen pala mugimendua Deban. Urte osoan zehar aritu dira kirola egiten; bai astean zehar, baita aste buruetan ere eurentzako propio gordetako igandeetako tartetean. Buru-belarri dabilta, oraintxe, II. Txapelketaren azken txanpan sartuta.

Emakumezko arraunlariak ere baditugu Deban; aurten Zumaiaiko traineruarekin garaipenik garrantzitsuena, Kontxa-ko bandera, lortu dutenak gainera.

Eta korrika dabilta beste morderoxka, eta kiroldegian beste hainbeste; ibilketa nordikoa ere zabalitzen ari da pixkanaka euren artean. Emakume kirolariak badira gurean, badirenez!



# Geoparkeko pintxo lehiaketa

Euskal Kostaldeko Geoparkeak antolatutako “Flysch & Karst” Pintxo Lehiaketak baditu irabazleak: Flysch kategorian, **Itziarke Salegi jatetxea** izan da irabazlea; eta Karst kategorian, berriz, **Mutrikuko Txirlatxo taberna**. Asteburuan 1.000 lagun baino gehiagok hartu du parte pintxo onenen aukeraketan.

Aurrerantzean Flysch eta Karst pintxoak lehiaketan parte hartu duten 20 establezimenduetan eskainiko dira eta Geoparkeak deskontu-txartelak jarriko ditu herritarren eskura pintxoak dastatzeko.



“Flysch pintxo” irabazlea.



“Karst pintxo” irabazlea.

## Erraustegia

### Kedarretatik argira - De la incineración al reciclaje

“Erraustegia: kedarretatik argira” izenpean GHK-ak herriz herri antolatu dituen ekitaldietan parte hartze polita egon da eta abendua-  
ren 10ean, Kultur Elkartearen ere, 50 lagun bildu dira. Bertan, Zubietako errauste plantaren gorabeherak eta zergatik gelditu den azaldu du partzuergoko zuzendari den Ainhoa Intxaurrendietak. Bideo emanaldi eta hitzaldiaren ondoren bertakoen kezka eta galdera guztiei erantzun die Ainhoak.

Informazioa: [www.ghkinfo.com](http://www.ghkinfo.com)



## Euskal Kostaldeko Geoparkeak Geoturismoari buruzko nazioarteko kongresu batean parte hartu du Cabran (Kordoba)

Deba, Zumaia eta Mutrikuko alkateak, Maider Zubikarai, Iñaki Agirrezabalaga eta Joseba Palenzuela, hurrenez hurren, eta Leire Barriuso, Geoparkeko gerentea eta Asier Hilario, Zuzendari Zientifikoa, Geoturismoari buruzko nazioarteko kongresu batean izan dira, Cabra herrian (Kordoba).

Nazioarteko 300 aditu elkartu dira bertan lurraldeen garapen ekonomikorako Geoturismoak eskaintzen dituen potentzialitateak aztertu asmoz.



## URTEBERRIKO FERIA

### 2014



#### Urtarrilak 4, larunbata

- **Goizeko 9:30ean:** Musika bandarekin kalejira. Urte Berri feriko epaimahaiaren lanen hasiera.
- **Goizeko 10:00etan:** Ganadu feria kioskoan.
- **Goizeko 10:30ean:** Txistulari eta trikitilariekin kalejira.
- **Goizeko 11:30ean:** Debako musika eskolako dantzarien emanaldia Aldats pilotalekuan.
- **Eguerdiko 13:00etan:** Urte Berri feriko sari banaketa.
- **Eguerdiko 13:30ean:** Musika bandarekin kalejira.
- **Arratsaldeko 18:00etan:** Idi probak.

#### Urtarrilak 5, igandea

- **Eguerdiko 12.00etan,** Aldats pilotalekuan: 2014ko binakako Urrezko Aizkora. Eusko Label saria.

#### 4 de enero, sábado

- **A las 9:30:** Pasacalle por la banda de música. Comienzo del trabajo del jurado de la feria de Urte Berri.
- **A las 10:00:** Feria de ganado en el quiosco.
- **A las 10:30:** Pasacalle con los trikitilaris y txistularis.
- **A las 11:30:** Actuación del grupo de dantzaris de Deba Musikal en el frontón Aldats.
- **A las 13:00:** Reparto de premios de la feria.
- **A las 13:30:** Pasacalle con la banda de música.
- **A las 18:00:** Idi probak.

#### 5 de enero, domingo

- **A las 12:00,** en el frontón Aldats: Urrezko Aizkora 2014, por parejas, premio Eusko Label.



# 2013ko azaroaren 7an EAJ-PNVk aurkeztutako mozioak ahobateko onarpena izan zuen

## 35/02 eta 26/11 HERRIKO TABERNAK ETA SEGI GAZTE ERAKUNDEARI BURUZKO SUMARIOEI BURUZKO MOZIOA

Urriaren 17 eta 14an Audientzi Nazionalak Herriko Tabernak izenez ezaguna den epaiketari eman zion hasiera (35/02 sumarioa) baita 26/11 Segi gazte erakundearen aurkako epaiketari ere. Sumario hau duela hamar bat urte hasi zen Garzón epailearen ekimenez. Prozesu erraldoia da eta 80 pertsona daude auziperatuta talde armatuan parte hartzea eta harekin lankidetzan aritzea egotzita, eta Herriko Tabernen kudeaketarekin eta ETArekin finantzabideekin zerikusia duten delitu ekonomiko eta sozietateetakoak leporatuta.

Prozesu honek beste batzuk ekartzen dizkigu gogora, besteak beste 18/98 sumarioa (AEK) eta Euskaldunon Egunkaria sumarioa. Prozesu horiek ez zuten inoiz hasi behar, hasiera hasieratik oinarri juridiko-penalik gabeak izan direlako. Prozesu hauen sorburu eta garapenean nagusi izan ziren asmo eta inspirazio politikoa. Prozesu hauek justiziaz kanpoko irizpideek markatu zituzten, besteak beste, nahita gainditu zen erakunde terrorista barruan egoteak eta harekin lankidetzan jarduteak duen esanahia, horretarako probarik egon gabe. Auziperatuei ETAko kide izatea edo harekin lankidetzan aritzea egotzi zitzaie, hori esateko argudio bakartzat lege barruan garatzen diren jarduera kulturalak, prentsa lanak edo politikoak erabilia, eta dena ETArekin mende zegoela ezarriz. Hori dena egin zen testuinguru politikoan PPren Gobernuak PSOEren lankidetzari esker Alderdien legea egin zuen, ondorengo ilegalizazio prozesuak ekarri zituen.

Urte batzuk geroago, lehenagoko kontua errepikatu da. Gainera, epaiketa bestelako testuinguru batean garatuko da. Oraingo zailtasun eta konplexutasunekin ere, bake eta normalizazio prozesua Euskadiko erakunde politiko eta sozialek bereganatuta duten garaian, hain zuzen.

Horiek arrazoi guztiek erakusten dute prozesu judizial horren hasierak atzeraldia suposatzen duela, elementu asaldatzailea da euskal gizartea normalizazio politikorako bidea egiten ari den une honetan. Eta, hori dena, inputazioek oinarririk ez dutela aparte utzirik, hainbat abokatuk gaiaren inguruan izenpetu duten manifestuan argi geratzen denez.

Gure aburuz 35/02 eta 26/11 sumarioek ez dute gutxieneko oinarri juridikorik eta ez zen sekula hasi behar edo, bere kasuan, kausa artxibatu behar zen. Hala eginik, agintea berrezarriko zen eta zigor justiziaren prestigioa berreskuratuko, bake prozesuari eta Euskadin normalizazio politikoari lagunduz.

Esandakoagatik guztiagatik, EAJ-PNVren udal taldeak Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta onartzeko aurkeztu du honako

### MOZIOA

Debako udalak, erabateko desadostasuna adierazten du epaiketa politiko hauen aurrean, eta inoiz hasi behar ez zen prozesua berehala ixtea eta auziperatu guztien absoluzioa ebazteko erabaki juridikoa hartzea exijitzen du.

Iraganeko nahigabe eta  
iraganeko negarren  
konponbidea gure herriak  
hartuko luke pozarren!!  
Baina begira hego haizeak  
Madriletik zer dakarren...  
berez hogeita batgarren  
mendea omen den arren,  
gertatzen ari dena norbaitek  
azaldu dezala arren!!  
Herri bat ari dira epaitzen  
herri bat izatearren!!



DEBAKO UDALA



Gipuzkoako  
Foru Aldundia